

METODOLOGIA-FITXA

BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN INBENTARIOA (090205)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Berotegi-efektuko gasen inbentarioa.

Eragiketaren kodea.

090205 (10/2023 Legea, azaroaren 9koa, 2023-2026 Euskal Estatistika Planari buruzkoa).

Erakunde arduraduna.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

Beste erakunde partaide batzuk.

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

Gai-arloa.

Ingurumena.

Maiztasuna.

Urtekoa.

Eragiketa-mota.

Zentzua.

Metodologia datuen jatorriari jarraiki.

Administrazio izaerako informaziotik abiatuta lortutako datuak.

Helburuak

EAEko Berotegi-efektuko Gasen (BEG) isuriei buruzko informazioa eman nahi da, Klima-Aldaketaren Aurkako 2050erako Euskal Autonomia Erkidegoko estrategia ezarri diren xedeak betetzen direla kontrolatzeko.

Aztertzeko aldagai nagusiak

- **Isurketak gas, CO2-ren tona-baliokideak, motaka:** karbono-dioxidoa (CO₂), metanoa (CH₄), oxido nitrosoa (N₂O), hidrofurokarbonoak (HFCs), perfluorokarbonoak (PFCs) eta sufre hexafluoruroa (SF₆).
- **Isurketak, CO2-ren tona-baliokideak, sektoreka:** sektore energetikoa (zuzeneko isurketak + inportatutako elektrizitatearekin zerikusia dauzkaten igorpenak), industria, garraioa, egoitza, zerbitzuak, nekazaritza eta hondakinak.
- **Isurketak, CO2-ren tona-baliokideak, emisio-iturrika:** energia-eraldatzea, industria, garraioa, egoitza, zerbitzuak, nekazaritza eta hondakinak.
- **Isurketak, CO2-ren tona-baliokideak, CFR epigrafeka:** (Txostenetarako Formulario Erkidea): energia, industria-prozesuak, disolbatzaile eta beste produktu batzuen erabilera, nekazaritza, hondakinak, eta kanpo-jatorriko elektrizitatea.

Eremua

Populazio-eremua:

Kiotoko Protokoloak kontrolatutako gasen isurketa antropogenikoak, bai zuzenak bai guztizkoak. Kanpo jatorriko elektrizitatea aparteko epigrafe gisa sartu da, Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak hala baimentzen baitu.

Kiotoko Protokoloak kontrolatutako gasen isuri antropogenikoak dira, zuzenekoak nahiz osoak. Kiotoko protokoloaren arabera, sei gas hauek dute berotegi-efektua: karbono dioxidoa (CO₂); metanoa (CH₄); oxido nitrosoa (N₂O); hidrofurokarbonoen familia (HFC); perfluorokarbonoen familia (PFC); eta sufre hexafluoruroa (SF₆). Oinarritzat hartutako urteko isurietan honakoak batu dira: 1990. urtea CO₂, CH₄ eta N₂Ora, eta 1995. urtea gas fluordunentzat (HFC+ PFC+SF₆).

Lurralde-eremua:

EAEko balio esanguratsuenak jasotzen dira.

Denbora-eremua:

Jasotako datuak urtean zehar erregistratutako jardueren inguruak dira.

Galde-sortak

Zabalkundea

- [Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa.](#)
- [Internet: Taula estatistikoak Eustat.](#)